



BARREN
TOKIKOM

BALLEGGOTIA

54



Makila kolpeka

Gremioen gida

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.
BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urzuzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585
bende@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
telefon@pagoagasa.com

ELGOIBAR

FONTANERIA
Ibámar
ITURGINTZA

San Roke, 10-A, behe B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net

ongi Iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com

TELLABIDE
ITURGINTZA

Azpilgoeta, 7 behe - Mendaro
Tel.: 943 755 062 / 807 755 062
iturgintzateffabide@hotmail.com

SANTANA
Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behe
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

AROTEGIAK

BICNA S.L.
AROTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.bicna.eus
info@bicna.eus

f

Ulazia
AROTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albixuri industriagunea, 1-O/1-P
943 740 547



MAR
AROTEGIA

Olaso industriagunea, 17 behe
943 531 471
609 054 978
carpinteriamar@hotmail.com

f

iraolagoitia
arotegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain Industriagunea, 9
20850 Mendaro
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485
www.iraolagoitia.com

ASIMA
Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225
asimaarotegia@gmail.com

LEIHOAK

LODOSO LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosof@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

IZURRIEN KONTRAKO TRATAMENDUAK

Hércules



658 710 898

Iturgintza
■
Aroztegiak
■
Izurrien kontrako tratamenduak
■

ELEKTRIZITATEA

CARRANZA,
ELEKTRIZITATEA

Uparitzaga, 10, 6.B
Elgoibar
karranzaj@gmail.com

Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999

egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.

Raimon: 677 512 462
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Pedro Migel Urzuzuno, 14 behe
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

IGELTSERITZA

A. Garate

Era guztietako igeltsaritza lanak egiten aditua
angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behe - 2. zkia
Elgoibar

610 226 651

Leihok
■
Pintura
■
Elektrizitatea
■
Igeltsaritza
■

Iturgintza
■
Aroztegiak
■
Izurrien kontrako tratamenduak
■



Nekeza duk bide berriak urratzea, Janos!

|| Ez saiatu paraleloetarako bide horretatik; nik azken muturreraino eza gutzen dut. Amaierarik gabeko gau hori zeharkatu dut; nire bizitzako argitasun eta alaitasun guztia xahutu didana. Jainkoarren! Baztertu itzazu paraleloak, otoi. Irrika lizun bat bailiran gaitzetsi itzazu, zure denbora, osasuna, zure arimaren lasaitasuna eta zure bizitzako zorientasuna bera ere

galarazi diezazukete (niri gertatu zaidan bezala)... Geometriaren inperfekzioa ezabatu nahi zuen martir bat bilakatu nintzen eta garbi bueltatu nintzen mundura... Baina, berriz ere, beraietara jo nuen, inor gau horren sakonera iristeko gauza izan ez dela konturatu nintzenean. Atsekabertuta eta pena handiz egin nuen. Itsaso Hil honen harkaitz guztien ondotik bidaiatu dut eta beti itzuli izan naiz masta hautsita eta oihalak urratuta... Ero batek bezala arriskatu nituen nire bizitza eta nire zorientasuna. Aut Caesar aut nihil". Farkas Bolyai matematikari hungariarra zen hitz hauen bidez, Janos bere semeari gutunez zuzentzen

zitaiona 1820an. Janos Vienako ingeniari militarren eskolan ikasten ari zen eta aitak jakin zuen, semea Euklidesen paraleloen postulatuaren kuestioan murgilduta zebilela. Gai horretara dedikatzearen arriskuez ohartarazi nahi zuen aitak semea. Baina Janosek, aitaren ohartarazpenei entzungor egin zien, berau ere, hari-matazan erabat korapilatuta. Eta korapiloa askatu ere bai.

Bi mila urtetan zehar zientzialariek erabateko autoritatea onartu izan zioten sistema, geometria euklidearra, aukera bakarra ez zela erakutsi zuen. Matematikaren ezagutza objektibo, zuzen eta betierekoaren mitoa zalan-zalan jartzeko oinarriak eskainiz. 21 urte zituen.

"Bi mila urtetan zehar zientzialariek erabateko autoritatea onartu izan zioten sistema, geometria euklidearra, aukera bakarra ez zela erakutsi zuen"



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Euzko Legeburu Batzarreko Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENeK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENeK ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako enantzikizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zaloa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Inigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enet Ezenarro, Ander Sorraluze, Ane Astiazaran, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



ELGOIBAR
UOLA
KUTUNTAMENTO

LAGUNTZAILEAK:



MENDARO
2001



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ AUKERA GUZTIEK BALIO

Sasoi batean oso bestelakoak ginelako ustea genuen. Euskalduna naiz eta harro nago esaten genuen. Euskal Herria entzun, eta zazpi probintzietako mapa ikusten genuen. Zapaldutako herriekiko aldarri lau haizetara zabaltzen genuen. Sasoi batean, giza hutsak ginen. Izan ere, gaur egun, euskalduna naiz entzun, eta, sarri askotan, auzo lotsa sentitzen dugu batzuek behintzat, gutako asko amerikarrekin, israeldarrekin, espainiarrekin... bat eginda, Venezuelaren kontra sasiak sutzen saiatzen direlako demokrazia, eskubideak eta askatasunaren izenean. Nik ez dakit nola egiten duten lo lasai asko jakinda horrek zer ekarriko duen. Agian, Euskadin dauden espainiar, vene-

zuelar, koloniar... etorkin horren botoa arrantza egiteko aukera ikusiko dute? Ez zen harrizkoa izango, boterea lortzeko bai hemen zein han aukera guztiek balio baitute.

Juan Luis Mugertza

▶ ZATOZ!

Oier Gomez Mielgo preso ohi gasteiztarra hilaren 26an hil zen, Baionan. 2011n atxilotu zuten Frantzia, eta 2012an Hodgkin linfoma detektatu zioten. Espetxean mantendu zuten eta 2017an hezurretako minbizia diagnostikatu zioten (d'Edwing sarkoma). Urte honetan askatu zuten, apirilean, pairatzen zuten gaixotasuna sendaezina zelarik. Oierrek, urte guzti horietan bere gaixota-

suna era egokian, konfidantzazko profesionalekin eta senideen alboan artatuta izateko eskubidea zuen, baina sei hilabete bizitza zuenean askatu zuten.

Beste 21 preso daude gaur egun egoera larrian Frantziako eta Espainiako estatuetan. SAREk larriki gaixo dauden preso guztiak beraien gaitzak sendatzeko espetxetik atera behar direla gogorazi nahi du, ez gaixotasunak atzera bueltarazi ez duenean, heriotzera kondenatuak. Bada ordua pausoak ematen hasteko.

Gaur ostirala, iluntzeko 20:00etan elkarretaratzea izango da King Kong eraikinen azpian. Indarra egin behar dugu halako egoera larrikin lehenbailehen bukatzeko. Zatoz!

SARE Elgoibar



I. URTEURRENA

Joxemartin Urrutia Abio

"Txotxe"

2018ko otsailaren 4an hil zen.

**Izan zarena, erakutsi duzun kemena,
gure artean geldituko da zuek jasoetako dena.**

Zure betiko kuadrilla



Agustin Unamunzaga Unamunzaga

2019ko urtarrilaren 25ean hil zen, 91 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



II. URTEURRENA

Manuela Larrañaga Loyola

2017ko otsailaren 2an hil zen, 90 urte zituela. Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailak 2, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretanoi alde zuretik eskerrak.





25 urte, kantuan eta eskean, baserriz baserri

1994an berreskuratu zuten Elgoibarko Izarrak gure herrian galduta zegoen ohitura zaharra

Elgoibarko Izarrak ekin berri zion bigarren etapari, 80ko hamarkadan desagertzeaz egon ondoren, eta bigarren etapako helburuetako bat izan zen gure herrian galduta zegoen ohitura zaharra berreskuratzea. Ordutik behin baino ez diogu huts egin gure herriko baserritarrek dugun hitzorduari. 2015ean izan zen, egun horretan botatako elurteak baserrietako bideak itxi zizkigulako.

Otsailaren 4an izaten da hitzordua, Santa Ageda bezperan. Kalegoen plazan bildu eta bi taldetan banatu ondoren hartzen dugu baserri-auzoetarako bidea. Idortobeko eta Aiastiako etxeak koplazen ditu talde batek, eta Sallobentekoak, Urruzunokoak eta Arriagakoak besteak.

24 lagun inguru biltzen gara urtero-urtero. 4 koplari, beste horrenbeste trikitilari eta beste 16 lagun inguru koruak osatzeko. Otsailaren 4a larunbata edo igandea tokatzen bada, egun osoa ematen dugu kantuan eta eskean. Asteguna tokatzen bada, berriz, eguerdian hasi eta gauera arte.

Baserri atarietakoa izaten da politena. Koplariak kantuan eta baserritarrak atearen atzetik entzuten. Bertsolarien koplak bata bestearen atzetik joaten dira baserritarrak limosna bota arte. Etxe askotan, gainera, barrura ere sartzen gara sukaldeko epelarekin eta bertako jan-edanekin gozatzeko. Eta hala baserri batetik bestera, 50 baserri inguru koplatu arte. Ohitura zaharra estimatzen duten etxeetara joateko ahalegina egiten dugu, baina Elgoibarren baserri asko dago eta badakigu ezin dugula etxe guztietara heldu. Hala ere, beharbada izango da etxeren bat gu ikusteaz aspertuta dagoenik. Eta, beste aldean, gu joan ez eta zain egoten denik ere izango da bateren bat. Horrela bada, guregana jo besterik ez duzue.



Zortzi laguneko taldearekin ekin genion 1994an. Iaz, berriz, ia 30 lagun bildu ginen.

Amaiera Aiastiako elkartean izaten da. Han ematen diogu azkena Santa Ageda bezperako jardunari soziedadekoek prestatutako afari ederrarekin. Bertsolarien beste koplak sorta bat entzun ondoren altxatzen gara mahaitik. Sukaldariei eskerak eman eta datorren urtera arte elkarri esan ondoren hartzen dugu bakoitzak bere etxerako bidea. Eta berdin jarraitzeko asmoa daukagu Elgoibarko baserritarrek hala nahi duten bitartean.

Amaitzeko, 25 urteotan gure artetik joan zaizkigun lagunak hartu nahi ditugu gogoan: baserritarrak, koplariak, koruko lagunak, Aiastiako Kalamua elkarteko sukaldari-zerbitzariak... Ikusi ez, baina otsailaren 4an gurekin daudela sentitzen dugu.

Santa Ageda bezpera, eskeak zoriona dakarren eguna

Berezia zaie Santa Ageda bezpera bi orrialde hauetan batutako lagunei. Eurek egiten dute berezi otsailaren 4a, nork bere alea jarrita. Usadio zaharrear, baserriz baserri kantuan eta eskean ibiltzen diren taldekoak dira batzuk, eta baserriko epelean horiek etxeko hartzen dituztenak besteak. Ez daude hemen diren denak, eta gutxiago izan diren denak, hogeita bost urtean askok eman eta jaso dutelako Elgoibarko Izarraren santa eskean, baina badira familia handi baten ordezkari eta bina galdera egin dizkiegu guztiei. Honako hauek:

Zer da zuentzat Santa Ageda bezpera? Zelan bizi duzue otsailaren 4a?

German Meabebasterretxea (Koplaria)



Santa Ageda eskearekin lehen harremanak Elgoibartik kanpo izan nituen, Donostia eta Mutrikun hain zuzen. Elgoibarren galduta zegoen une horretan baserrietako eskea, nahiz eta kalekoa beti egon den indartsu. Elgoibarko auzoetan ateratzeko idea sortu zenean, ez nuen zalantzarik egin, eta ordudik, hor gabilta azken 25 urte hauetan, eta beti otsailaren 4an, Santa Ageda bezperaz. Urte batzutan Elgoibarren, Mutrikun eta Arraten (Eibarren) ere egin izan dut, baina lan astuna da toki baten baino gehiagotan egiteko. Egun berezia izaten da. Taldea urte askoan antzerakoa izan da, nahiz eta jende berria ere zorionez hurbildu den. Egun pasa polita izaten da, nahiz eta gure kasuan lana ere egin beharra dagoen. Zailena hainbeste orduan

konzentrazioa mantentzea da ahalik eta saio txukunenak egin ahal izateko ate ondoan. Urteen joanean, zoritxarrez hutsuneak ere izan dira gure artean. Bertsolagun urte askoan gurekin izandako Juan Mari Narbaiza, eta taldeko txofer-antolatzaile Juan Mari Uranga, sukaldari lanetan lehen urteetan ibilitako Jose Mari Iruista... beraien gogoan izateko eguna ere izaten da.

Jabier Ziarda (Koplaria)

Ume-umetatik ezagutu dugu ohitura da santa eskea, beti gustatu izan zaiguna. Baserri mundutik gatoz gu eta beti eza-gutu dugu santa eskea. Gurera beti etorri izan dira koplariak Santa Ageda bezperan eta beti bizi izan dut oso gertutik usadio hori. Talderen bat noiz etorri zain egoten ginen gu beti etxean, haiei kantuan entzuteko, eta ikusten dugu orain ere baserritarrek estimatzen dutela santa eskekoon bisita. Elgoibarko Izarrarekin 24 bat urtean ibili naiz koplari eta aurrez beste zazpi bat urtean ibili nintzen Mutrikuko, Itziarko eta Mallabiko taldeekin.



Juan Mari Areitio (Koplaria)



Egun berezia da otsailaren 4a. Hogeitik gora urtean ibili naiz Elgoibarko Izarrarekin koplari eta beti ondo, beti gustura. Orain arte, urte batean auzo batera, eta bestean bestera ibili gara, txandaka, batean Germanegaz eta hurrengo Jabierregaz, baina orain gurago dugu beti leku batera joatea, urte bitik behin ikusten denari baino errazago kantatzen zaiolako urtero ikusten denari. Sekulako harrera beroa egiten digute baserrietan. Denek eskertzen dute, eta batzuek larregi ere bai, Aldapakoek adibidez. Afaritan sortzen den giroa ere berezia izaten da. Ahal dudan artean eutsi nahiko nioke nik honi.

Arantza Beristain eta Ekaitz Baskaran (Trikilariak)



Duela hogeita lau urte hasi ginen santa eskean baserriz baserri irteten.

Oso egun berezia da guretzat, urteetan zehar familia txiki-handi bat osatu dugulako. Batzuk joan eta beste batzuk etorri egin dira, baina parte-hartzaileak eta baserritarrak beti egongo dira guztion bihotzetan.

Oier Baltzola (Soinu jolea)



Egutegian markatutako eguna da otsailaren 4a. Estraineko urtean ez nintzen izan, baina geroztik urtero ibili naiz Elgoibarko Izarrarekin santa eskean, baserriz baserri, soinua hartuta. Aspaldiko tradizioa da, mantendu beharrekoa. Egun ederra pasatzen dugu. Geuk pasatzen dugu ondo, eta baserritarrei ematen diegun poza izugarria da. Baserritarrek atea zabaltzen duten une hori izugarria izaten da, hunkigarria ere bai sarri. Ea eusten diogun honi luzaroan!



Pake Gartzia (Korukoa)



Nire egutegian gorritz markatuta izaten dut Santa Ageda bezpera, otsailaren 4a. Lagun artean kantari irteteko eguna izaten da, egun berezia. Baserrietan nola hartzen gaituzten ikusita, emozio handiz bizi izaten dudana eguna da. Hogeitaka urtean irten naiz santa eskean Elgoibarko Izarrarekin eta denbora horretan lagun on asko egin ditut. Batzuk bidean gelditu dira eta horrek oroitzapen mikatzak sortzen dizkit. Baserrietan harrera beroa egiten digute. Maitasun handiz egoten zaizkigu zain eta denetarik eskaintzen digute, maitasun handiz. Akordatzen naiz hasierako urteetan goizaldera arte ibiltzen ginela kantuan, eta etxe guztietan ez zutela ondo hartzen ordu txikitako bisita. Behin, urrutiko baserri bateko atarira heldu ginen. Hego haizea egiten zuen, eta zerua izartsu zegoen. Kantuan hasi eta etxeokoe argia piztu arte kopla dezente kantatu behar izan zituzten koplariak. Halako batean gizonezko bat agertu zen atera. Urte asko ziren euren baserrira santa eskean inor ez zela agertzen. Hunkituta zegoen oso eta esango nuke negar malkoak ere ikusi nizkiola. Geu ere hunkitu ginen.

Larraitz Zialtzeta (Korukoa)

Egun polita da, lagunartean ibiltzeko egun ederra. Debozio handia erakusten du jendeak eta baserriarrek nola hartzen gaituzten ikusteak lotu egiten gaitu. Aste-barruan tokatzen denean otsailaren 4a presaka ibiltzen naiz, baina lana ere laga izan dut santa eskean joateko. Izugarri gustatzen zait. Une hunkigarriak izaten dira, bereziki baserriaren batean koplen ordez salbea kantatzea egokitzen denean.



Maria Jesus Leiaristi (Urtia baserrikoa)

Egun handia izan da beti guretzat Santa Ageda bezpera. Gure aita, Isidro Leiaristi, koplari arituzten urte askoan Mutriku aldean, eta beti bizi izan dugu modu berezian santa eskea. Orduan, gau osoa ematen zuten baserri baserri kantuan eta lehertuta iristen zen etxera. Beraz, ohitura hari eusten dion jendea dagoela ikustea pozgarria da. Kaletik gertu dago gure etxea eta ez dugu jakitzen noiz etorriko diren kantura, hasi eta berehala edo azkenera, baina zain zain egoten gara beti. Trikiti doinuak eta makila zaratak entzun zain egoten gara. Hasieran lotsa puntu bat ere ematen du atea zabaldu eta horrenbeste lagun norberari kantuan entzuteak, baina oso-oso polita izaten da.



Maria Agirre (Armarieta goikoa baserrikoa)

Beti gustatu izan zait niri santa eskea. Senarra, Jose Zubizarreta, bertsolaria izan nuen eta bertsoa eta kantua beti estimatu ditut nik. Etxean beste norbait dagoenetan, zain egoten naiz, noiz eskekoak etorriko, baina bakarrik banago, etorri ezta nahiago batzuetan, ez naizelako gauza behar den moduan atenditzeko. Ez etortzeko ere esan izan diet urteren batean horrexegaitik, baina ez nahi ez dudalako etortzerik. Santa esketik astebetera, otsailaren 11n, 90 urte beteiko ditut, eta santa eskekoen bisita beti estimatu izan dut. Hogeita bost urtean ibili dira? Eutsi diezaiotela ba beste urte askoan usadio zaharrari!



Alberto Unamuno (Armuetako baserrikoa)

Tradizio handiko eguna da otsailaren 4a eta ohitura zahar polita santa eskea. Ni Soralezekoa naiz eta neure ibilia naiz gaztetan santa eskean, kintoekin, soldadutzara joan aurretik. Gau osoan ibiltzen ginen kantuan, lehertu arte. Gauza bat du hona gaur egiten dutenak: egun argiz etortzen direla kantukoak. Lehen, gau osoa ematen zuten baserrietan gure zain.



Agustin Irusta (Aiastiako Kalamua elkartekoa)

Ohitura eder bat da santa eskea, umetan baserrian ezagutu genuena. 13-14 bat urte genituenan geu ere irteten ginen auzoan kantura, eta Elgoibarko Izarrari esker ohitura horrek bizirik jarraitzen duela ikustea ikaragarri pozgarria da. Kantura ezin izaten naiz joan, baina afalordurako ailegatzen naiz. Afaria prestatzen diegu Barentin Egia eta biok santa eskekoen Aiastiako soziedadean, eta afal ondorenean han sortzen den giroa itzela izaten da. Ikaragarri ondo pasatzen dugu. Esker onez agurtzen gaituzte gero denek gainera eta esan dezaket bai niretzat eta baita Kalamua elkartearentzat ere ohore handia dela afari hori gertatzea. Garai bateko oroitzapenak berritzen dizkigu otsailaren 4ak.





Santa Ageda bezpera, baserri atarietan





Zuen kexak, galderak edo txalok bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Zein asmo dauka Udalak Pilarreko aparkalekuarekin?: "Pilar ikastetxea bota zuten adinekoentzako egoitza egiteko, baina hori egin artean, aparkaleku bihurtu zuten gune hori. Hirugarren munduan ere ez dago horrelako aparkalekurik. Iluna, zikina, hezea eta arriskutsua da. Euria egiten duenetan sekulako ur putzuak sortzen dira lurlean, eta menditik ur pila bat erortzen da. Askotan mendia behera etorriko dela dirudi. Ezin al da gune hori apur bat txukundu eta aparkaleku duin bat egin?". Iosu Arraiz Hirigintza Saileko arduradunak esan du konponduko dutela, baina ez du gehiagorik zehaztu.



Noiz arte ezingo da aparkatu Plaza Txikian?: Herriguneko merkatariek diote igartzen dutela jende gutxiago dabilela dendetan Plaza Txikian ezin denetik aparkatu. "Jende askok, autoa Plaza Txikian utzi eta erosketak egiteko ohitura dauka, eta han aparkatu ezin denetik jende gutxiago dabil dendetan". Iosu Arraiz Hirigintza zinegotziak esan du Aita Agirre eraikineko obrak bukatu arte ezingo dela Plaza Txikian aparkatu. Auto batzuentzako lekua badago, baina une honetan obran diharduten gremioetako kideek betetzen dituzte.

/ Goazen' eta 'Ene Kantak' antzezlanetako eserlekuak zergatik ez ziren zenbakituak?: "Goazen antzezlanaren ikusteko ordu bate baino gehiago egin behar izan genuen ilaran, lagun ondoan eseri ahal izateko, eta *Ene Kantak* antzerkiarekin ere gauza bera gertatu zitzaigun. Horrelako emanaldietan zergatik ez dituzte eserlekuak zenbakituta saltzen, Pirritx eta Porrotxen ikusizunerako egiten duten bezala? Askok erosoagoa izaten da eta ilara luzeak ekiditen dira". Blanca Salegi Kultura Saileko teknikariak esan du *Goazen* antzerkirako eserlekuak zenbakituta jartzea zela beraien asmoa, eta hala eman ziotela agindua programa informatikoari, baina badirudi sistema bera berritzen ibili zirela egun horietan eta arazo tekniko baten ondorioz, sarreretan ezin izan zituzten eserlekuak zenbatuta atera. Teknikariak izugarri sentitzen du gertatutakoa, eta ulertzen du ilaran egon zirenen haserrea. Aurrerantzean, antzerki eta ikuskizun eszeniko guztietan eserlekuak zenbatuta jarriko dituztela gaineratu du.



M. Esther Mugerza Idiakez

"Belaustegi"

2019ko urtarrilaren 27an hil zen, 60 urte zituela.

Haren oroimenez meza izango da, domekan, otsailaren 3an, 12:30ean,

Elgoibarko San Miguel-Aiastiako elizan.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

**Zure irribarre goxoa
eta maitasuna
betirako izango dira
gure artean.**

Etxekoak



Elkarlanerako hitzarmena berri du Elgoibarko Udalak eta Agifes Buruko Gaixoen eta Senideen Gipuzkoako Elkarteak, hamar urterako

Buruko gaixotasunak sufritzen dituzten pertsonen eta haien senide eta zaintzaileen egoera eta bizi-kalitatea hobetu nahi dituzte Agifes elkarteak eta Elgoibarko Udalak, eta horretarako, elkarlanerako hitzarmena berri zuten astelehenean Ane Beitia alkateak eta Ruth Encinas Agifeseko kudeatzaileak, udal txean. Hamar urte dira lehenengo hitzarmena sinatu zutenetik. Orduan, Artetxeko bi etxebizitza laga zizkion Udalak Agifesi, doan, eta hitzarmen hori beste hamar urterako luzatu dute orain. Prentsaurrekoan, Agifeseko arduradunek zehaztu zuten buruko gaixotasunak dituzten pertsonen integrazioa eta normalizazioa bultzatzea dutela helburu nagusi, eta hori guztia lortzeko, gaixoen autonomia eta gaixoen giza garapena sustatzea dutela lehentasun, gaixoei bizkortzen eta gizarteratzen laguntzeko. Horrez gain, "laguntza eta babesa" ere eskaintzen dizkiete senide eta zaintzaileei. Horren harira Ane Beitia alkateak esan zuen Udalaran eguneroko kudeaketan "ildo estrategikoa" direla gizarte zer-



Amagoia Ruiz de Gauna udal teknikaria, Blanca Larrañaga, Ongizate Saileko zinegotzia, Ane Beitia alkatea eta Ruth Encinas Agifes elkarteko kudeatzailea.

bitzuek eta giza talde horren bizi-baldintzak hobetzeko hartutako konpromisoari eutsiko diola Udalak.

Auto batek su hartu zuen barixakuan



Auto batek su hartu zuen joan zen barixakuan Pedro Migel Urruzuno kalean, eta zer gerta zitekeen ere, ingurua itxi eta ambulatorioa hustu egin zuten udaltzainek. 9:10 inguruan sutu zen autoa eta erabat kiskali zen. Eibarko suhiltzaileek itzali zuten sutea. Autoa Mendaroko bizilagun batena zen.

Mendaroko Landa erretegia, Europako ehun jatetxe onenen zerrendan

Tradizio eta produktu onenen Europako ehun jatetxe onenen zerrendan sartu du Opinat-ed About dining webgune espezializatuak Mendaroko Landa erretegia, 51. postuan. Zerrenda horretan beste sei euskal jatetxe daude aurretik: Donostiako Ibai (Lehenengo postuan), Getariako Elkano (bigarren), Tolosako Casa Julian (bosgarren), Getariako Kaia Kalpe (bederatzigarren), Larrabetzuko Hormo Onda erretegia (23.) eta Lekunberriko Epeleta erretegia (39.). Sei mila erabiltzaile eta aditu baino gehiagok egindako erreferentzien eta iruzkinen arabera osatzen da zerrenda.



Haur eta gazteen transexualitateari buruzko formazio-saioa gaur zortzi, Elgoibarren

Haur eta gazteen transexualitatea egoerak: sexu aniztasunaren balioa izenburuko formazio saioa antolatu dute Ikastolako, Herri Eskolako, Haurreskolako eta Elgoibar BHI Institutuko guraso elkarteak eta Ongizate Sailak otsailaren 8rako. Naizen elkarteok (Transexualitate egoeran dauen gurasoen elkarteak) zuzenduko dute saioa, eta Kultur Etxeko sotoan izango da, 18:30ean hasita.

Jon Peli Uriguen izango da Elgoibarko EHBilduren alkatetzarako hautagaia



Jon Peli Uriguen izango da Elgoibarko EH Bilduren alkategaia maiatzaren 26ko udal hauteskundeetarako. Uriguenek 50 urte ditu eta goi mailako ingeniaria da ikasketaz. Ely taldean dihardu lanean, baina politikagintzan ere badu eskarmentua, 2007tik zinegotzia baita Elgoibarko udaletxean eta foru diputatua ere izan zen 2011-2015 legealdian. Martitzenean egin zuten aurkezpen ekitaldia Kultur Etxeko sotoan, eta hantxe egin zituen Uriguenek bere lehenengo berbak alkategai moduan. Azken bi legealditan EH Bilduren alkategaia izan den Jose Lus Ibartzabali eskerrak eman zizkion, eta hark emandako lekukoa "ilusioz eta arduraz" hartuko duela adierazi zuen.

Auto batek istripua izan du Idortorbeko bidean

Auto batek istripua izan zuen martitzenean, Idortorbeko bidean. Eguerdian, 13:00ak aldera, gertatu zen ezberharra eta ibilgailua irauli egin zen. Eibarko Arrateko suhiltzaile etxeko bi kamioi joan ziren istripua gertatu zen tokiraino.



Jubilatuak Biltokiak bidaia luzeak antolatu ditu 2019rako

Jubilatuak Biltokiak hiru bidaia luze antolatuko ditu 2019an (Costa Brava, Errumania eta Portugal), eta interesatuek otsailaren 25era arte dute izena emateko epea. Datak zehaztuta dituzte: Costa Brava maiatzaren 14tik 21era joango dira; Errumaniara, ekainaren 3tik 10era, eta Portugalera, irailaren 21etik 27ra. Bidaia horiei buruzko xehetasun guztiak Jubilatuak Biltokiko oharren taulan edo biltokiko bulegoan bertan kontsultatu daitezke. Astelehenetik ostiralera egoten da bulegoa zabalik, 11:00etatik 12:00etara.

Sendi Anaitasuna elkartearen urteko batzarra, domekan

Mendaroko Sendi Anaitasuna elkar-teak urteko batzarra egingo du domekan, otsailaren 3an, Mendaron. Azpilgoetako elizan izango da, 11:00etan. Lau puntu izango ditu batzarrak: iazko diru-kontuak, zuzendaritzaren proposamen berria eta bozketa eta bazkideen zerrendaren irakurketa. Zuzendaritzatik ohartarazi dute batzarrera agertzen ez den bazkideak 10 euroko isuna ordaindu beharko duela.

Immersoko opor eta Termalismo programetarako eskaerak

Elgoibarko Udaleko Ongizate Sailak jakinarazi du zabaldu dela Immersoko oporretarako eta Termalismo Programetarako eskaerak aurkezteko epea. Interesatuek Udalaren Herritarren Arreta Bulegoan edo Jubilatuen Etxean eskuratu ditzateke eskaera orriak.

Banatu ditu Mendaroko Udalak 'Mendaron erosi' kanpainako sariak

Mendaron erosi kanpaina egin zuen Mendaroko Udalak Eguberrietan, eta asteon banatu ditu sariak. Constantina Sanchezek jaso du lehenengo saria, 250 euroko erosketa bonoa. Bigarren sariaren irabazlea ez da agertu eta eman gabe laga dute. Hirugarren saria, berriz, 100 euroko erosketa bonoa, Maria Luisa Murak irabazi du.





Gemma Monreal eta Ane San Martin, irakasle-ikasleak.

▶ ANE SAN MARTIN MARGOLARIA

Amaren familiakoak ditu Ane San Martinek gen artistikoak. Antzerkirako, katurako, dantzarako, artisau lanetarako eta abarrerako zaletasuna izan dute bere arbasoek: amonak gantxiloa egiten du, aitona antzerkian eta abesten ibili zen, osabak ere dantzan eta kantuan ibilitakoak dira, eta ama bera ere diseinu munduan ibilitakoa da. Etxean presente eduki dute beti artea, modalitate guztietan. Iturri horretatik edan du Anek umetatik, eta oso gazte hasi zen eskola osteko orduak margoari eskaintzen. 17 urte baino ez ditu, eta dagoeneko prest dauka bere estreinako margo erakusketa. Gaurtik hilaren 9ra arte egongo dira ikusgai bere lanak Kultur Etxean.

- AINHOA ANDONEGI -

“Barruko sentimenduak azalertzeko bidea da niretzat pintura”

◆ Nondik datorkizu margotzeko zaletasuna?

Betidanik gustatu izan zait margo-zea. Amak ere diseinuari lotutako ikasketak egin zituen, eta gure etxean beti egon da presente artea. Ni umetatik ibili izan naiz margotzen margoekin, errotulagailuekin, lkastolan tenperare-

kin... eta LHn nenbilela Egur arte eskolan eman nuen izena. Paularekin [Paula Heras] hasi nintzen pintura ikasten, eta oso gustura aritu nintzen, baina denborarekin zerbait gehiago egin nahi nuela sentitu nuen. Gauza berriak probatu eta ikasi nahi nituen, eta Gemmaren [Gemma Monreal]

margo ikastaroetan eman nuen izena. Hori pauso inportantea izan zen niretzat pinturarako bidean. 12 bat urte izango nituen Gemmarekin hasi nintzean, eta bost urte hauetan pinturarako neukan zaletasuna izugarri indartu zait. Askok zor diot Gemmari.

◆ Margotzen ikasi egiten da ala be-

rezko zerbait eduki behar da?

Ez dakit. Niri esaten didate badau kadala berezko zerbait, baina nik uste dut berezkoa eduki behar den gauza bakarra gogoa dela. Gogoz eta ilusioz ikasi daiteke margotzen. Teknikak ere laguntzen du, baina praktika eta konstantzia dira garrantzitsuenak. Nik ordu asko eskaintzen dizkiot pinturari. Orain, erakusketa dela-eta, arratsaldero joaten naiz Gemmaren estudioara, baina, bestela ere, astean bitan joaten naiz eta nire kasa etxean ere margotzen dut.

♦ 17 urterekin estreinatuko duzu zure lehenengo erakusketa.

Bai, oraindik sinistu ezinda nago. Lanpetuta nabil azterketekin batera tokatu zaidalako, baina ilusio handiz nago. Hau dena Gemmari esker izan da, eta pila bat eskertzen diot. Berak nigan sinisten du eta asko animatu nau. Erakusketa bat egitearen ideia aipatu nion behin, eta berehala hasi zen dena mugitzen. Negozioa kenduko diodala esaten dit askotan!

♦ Zer ikusiko dugu erakusketan?

Lan pila bat dauzkat. Urte asko dira margotzen hasi nintzela, eta lan asko pilatu ditut. Erakusketa prestatzeko margolan asko bildu ditut, eta gure etxeak une honetan arte galeria baten itxura dauka! Lan guztiak batera ikusi ditudanean konturatu naiz benetan zenbat lan egin dudan urte hauetan. Hasierako koadroak eta gaur egungoak oso desberdinak ikusten ditut, eboluzioa nabarmena da. Aldaketa hori ikusteko hiru urteko diferentziarekin margotutako bi koadro berdin jarriko ditut erakusketan. San Rokeko ermita margotu nuen orain dela hiru urte, eta orain berriz margotu dut. Alde handia dago. Lehengo lanak infantilagoak dira, eta egungoetan teknika hobea dudala ikusten da. Baina oraindik ikasten ari naiz eta asko daukat ikasteko. Teknika eta modu asko daude margotzeko, eta beti egongo da zer ikasi. Erakusketako lan gehienak azken urteotan eginikoak izango dira. 16 bat koadro, eta arka-

tzez edo akrilikoz eginiko beste lan batzuekin osatuko dut erakusketa. Guztira 40 bat lan jarriko ditut.

♦ Zer eskaintzen dizu pinturak?

Barruko sentimenduak azaleratzeko bidea da niretzat pintura. Nire lanetan berehala igartzen da margotu nuen unean zer sentitzen nuen. Neguko paisaje ilun edo kolore gutxikoa bada, bistan da triste nengoela. Pozik nagoenean askoz lan biziagoak margotzen ditut. Garai batean oso triste egon nintzen, eta asko kostatzen zitzaidan gauetan loak hartzea. Gau haie-tako batean ohe ondoan neukan koaderno bat hartu nuen, eta marrazten hasi nintzen. Handik hiruzpalau hilabetera begiratu nituen marrazki haiek eta orduan konturatu nintzen zein gaizki egon nintzen garai hartan. Marrazteak asko laguntzen dit horrelako egoeretan.

“Arteari lotutako lanbideren bat izatea nahiko nuke etorkizunean”

♦ Zein teknika gustatzen zaizu gehien?

Normalean olioaren teknika erabiltzen dut, espatularekin margotuz. Gemmak bere koadroetan erabiltzen duen teknika da. Eskua bakarrik joaten zait teknika horrekin, guztiz libre sentitzen naiz espatularekin. Etxean margotzen dudanean akrilikoa edo akuarela erabiltzen ditut, espazio txikiagoan margotzeko egokiagoak direlako.

♦ Nola sortzen dituzu margo-lanak irudimenetik abiatuta ala beste nonbaitetik kopiatzen dituzu?

Normalean irudiak hartzen ditut erreferentzia moduan. Arkatzarekin eskema moduko bat egiten dut eta gero margotzen hasten naiz. Orain, adibidez, karro zahar bat margotu nahi dut,

eta erreferentziako argazkiren baten bila nabil, itsu-itsuan ez hasteko karroa margotzen. Dena dela, astebete eman dezaket koadro berarekin, eta askotan, hasieran zenak ez du zerikusirik izaten azken emaitzarekin. Inspirazioa etorri ahala aldatzen ditut gauzak.

♦ Zer margotzea gustatzen zaizu gehien?

Paisaje zaharrak, natura... Soria inguruan dauden harrizko herri zaharrak asko gustatzen zaizkit. Ibaiak, basoak eta naturarekin zerikusia duen guztia ere bai. Pertsonak, adibidez, ez ditut asko marrazten. Zaila egiten zait, ez dudalako apenas praktikatu. Egin izan ditut batzuk, baina gutxi. Erakusketan jarriko dut bakarren bat.

♦ Miresten edo jarraitzen duzun margolariren bat?

Orain, Artearen Historia ikasgaiaren barruan, Arte Barrokoa eta Erromantizismoa ikasten ari gara eskolan, eta garai hartako Friedrich asko gustatzen zait. Paisajeak margotzen ditu batez ere, eta esaten du paisaje horien bidez transmititzen dituela bere sentimenduak. Koadro oso onak dauzka, eta oso interesgarria iruditzen zait.

♦ Aurrera begira, zein dira zure asmoak eta ametsak?

Amestea libre denez, Dubaiko galeria baten nire koadroak ikustea gustatuko litzaidake! Baina badakit hori utopia bat dela. Egia esanda, ez dut gehiegi eskatzen. Bide honetatik jarraitzea gustatuko litzaidake. Orain Batxilergo Artistikoa egiten ari naiz, eta datorren urtean Arte Ederrak ikasteko asmoa daukat. Etorkizunean arteari lotutako lanbideren bat izatea nahiko nuke. Margo-irakasle lanetan gustura arituko nintzateke, adibidez. Bizitzeko adina edukita, pozik biziko nintzateke; ez dut beste munduko ezer eskatzen.

♦ Etxekoek nola hartu dute zure zaletasun hau?

Oso pozik! Nitaz harro daude! Aitak lagunei telefonoan erakusten dizkie nire azken lanak, eta horrek ere aurrera jarraitzeko ilusioa ematen dit.



Filmean parte hartu duten Elgoibarko dantzariak Leitzako plazan egin zuten grabazioan.



► TELMO ESNAL 'DANTZA' FILMAREN ZUZENDARIA

Abenduaren 21ean estreinatu zuten Telmo Esnalen 'Dantza' Euskal Herriko zinema aretoetan eta gaur iritsiko da Elgoibarrera. Gaur, bihar, etzi eta etzidamu ikusteko aukera izango da, Herriko Antzokian (Ordutegia, agendan). Filmean Haritz Euskal Dantzari Taldeko hamabost dantzarik parte hartu dute.

“Osasuntsu dago dantza, baina ageriko egitea falta du”

- AINARA ARGOITIA -

♦ **Zineman ohiko parametroetatik kanpo dago 'Dantza' eta zaila zaigu filma azaltzea. Idatzi diren kritikei erreparatuta, saldu behar handirik ez du, baina esaguzu zeuk zer den?**

Mimo eta maitasun handiarekin egindako filma da *Dantza*, eta herri laborari baten istorioa kontatzen du, euskal dantza tradizionalaren bitartez. Juan Antonio Urbeltz maisu handiak dantzaren sinbologiaren inguruan horrenbeste urtean landu dituen hipotesi eta koreografia guztiak hartu ditut eta horren gainean istorio bat eraiki. Munduko edozein bazterretan kokatu zitekeen istorioa da, baina kasu honetan, gure dantzak erabili ditugunez, oso gurea da, gure nortasuna ere erakusten duelako. Istorioa sinplea da: laborariek lurra lantzen dute, lurra arbola ematen du eta arbola hori izurrietatik zaindu behar da, fruitua emango badu. Eta ematen du. Sagarra ematen du arbolak eta sagarrarekin sagardoa egingo dute, eta sagardoaren eskutik etorriko dira gero jaia, harremanak eta amodioa edo nahi dena. Beharbada, nire lanik personalena izan da *Dantza*, baina aldi berean, kolektiboa ere bai.

♦ **Film mutua da 'Dantza'. Hitzaren bueltan gabiltzanontzat izugarria da ikustea zein ondo komunikatu daitekeen berbarik egin gabe.**

Hasiera-hasieratik garbi neukan elkarrizketarik gabeko filma izango zela. Dantzak badu bere lengoaia eta zinemak ere bai berea, eta pentsatu nuen bi lengoaia horiekin kontatu behar nuela istorio hau; horrekin nahikoa izan behar nuela. Dantzaren bidez beti komunikatzen da; beste kontu bat da guk kontatu nahi genuen istorioa ulertaraztea lortu dugun, baina baietz esango nuke. Istorioa bera egituratzea egiten zait niri normalean zailena, baina behin hori eginda eta mutua izango zela argi izanda ez nuke esango bereziki zaila egin zaidanik hitzik erabili gabe komunikatzea. Tematia ere banaiz eta hori dut ona. Egia esan, zailagoak egin zaizkit beste gauza batzuk, finantziarioa lortzea eta abar.

♦ **250 bat dantzarekin aritu zara. Dantzari horiek ez dira aktore. Horrek zaildu al du grabazio prozesua?**

Grabazio prozesua ezberdina izan dela esango nuke, zaila baino gehiago. Dantzariak dira, eta ohituta daude oholtzara igo edo jende aurrera agertu eta interpretatzera, eta guk azken batean hori da eskatu dieguna. Egia da dantzari batzuei tokatu zaiela papel bereziagoa betetzea eta horiekin landu ditugula pixkat gorputz mugimendua ez diren beste keinu eta mugimenduak, baina ez da aparteko lana izan. Joko horretan sartu dira eta oso



ondo moldatu dira. Beste zailtasun batzuk izan ditugu, hala ere dantzariekin lan egitean: Euskal Herrian ez dago euskal dantza tradizionaletik bizi denik, eta jakina, dantzarien lan-egunak, entsegu orduak eta grabazio egunak ezkontzen lanak izan ditugu. Erokeria bat izan da sarri behar genituen dantzariak egun eta ordu jakin baten batzea elkarrekin grabatzeko, baina aldi berean, polita ere izan da, eta nik uste dut eurek ere gustura aritu direla. Onena eman dute, eta oso esperientzia aberasgarria izan da guztiontzat. 250 bat dantzarik parte hartu dute eta gehien egon diren momentuan 201 egon dira. Zineman sekula egin ez diren moduan egin ditugu gauzak. Hasteko, grabazioa bera urtebetez luzatu da eta hori ez da batere ohikoa. Normalean bi-hiru hiletan errenditzen ditugu grabazio lanak. Hori ez da izan, baina, aktoreekin beharrean dantzariekin jardun garelako. Aro ezberdinak bilatzen genituen, naturarekin lotuta dagoelako filma eta lokalizazioak ere urtaroen arabera lotu ditugu.


♦ Film mutua da, baina euskarazkoa iruditu zaigu.

Bai, oso gurea da. Euskalduna euskaraduna da, eta gure dantzak euskaldunak dira. Ezin zen bestelakoa izan.

♦ Dantzaren bidez bizitzaren ziklo bat kontatu duzu, baina gehiago ere bai. Gureari balioa emateko ahalegina ere bada 'Dantza', ala?

Bai, badago. Istoria bat kontatu aurretik, beti dago zergatik edo zertarako bat, eta honek ere baditu bi helburu hasieratik. Batetik, dagokien lekua ematea gure dantzei, hor atzean dagoen sinbologia horrek asko esaten duelako gutaz eta sekulako altxorra dugulako, eta bestetik, beti soltean ikusi ditugun dantzei ildo narratibo bat eman eta zerbait kontatzea. Gure dantzek bere horretan dute balioa. Juan Antoniok asko ikertu du eta pauso eta koreografia berriak ere sortu ditu, baina beti oinarri batetik, eta horrekin lortu duena da dantza berriak sortzea, baina gure-gure sentitzea denok.

ANE ASTIGARRAGA Haritz dantza taldekoa



♦ Zer nolako esperientzia izan da 'Dantza' filmaren grabazioan parte hartzea?

Izugarria, oso-oso polita. Arantzazuko eta Leitzako grabazioetan izan nintzen ni. Arantzazun gabez grabatu genuen, iluntan, eta sekulako esperientzia izan zen. Lehenengo, Pasaiara joan ginen gure neurriak hartu zitzaizten, ondoren arropak probatzeko, eta handik, Arantzazura gero. Lazko urtarilaren 3an edo 4an izan zen, eta sekulako hotza egiten zuen. Manta eta berogailuak jarri zizkiguten grabaziotik grabaziora berotan mantentzeko, sarri

aldatu behar izaten zituztelako kamerak eta. Gogorra izan zen, baina aldi berean, oso ondo pasatu genuen. 16:00etan hasi eta goizaldera arte ibili ginen grabatzen, bi gau osoz. Berezia izan zen. Gu ohituta gaude oholtzara igo eta dantza egiten, baina han, zatika egin genuen dantza; oraintxe hasierako pauso batzuk, eta gero azkenak; behin ere ez genuen dantza osorik dantzatu. Zatika grabatzen gintuzten. Leitzako eszenan ere parte hartu nuen, festa handi batean. Hantxe batu ginen dantzari gehien, eta sekulako esperientzia izan zen. Beste mundu bat da hau. Ikustea horrenbeste jende lan egiten duela film

batean... Leitzan, hamar bat lagun zure den gu denok makillatu eta orrazteko eta filmean ikusi nahi ez zituzten estoldak tapatzen ere ibili zen bat, pentsa! Jantziak ere izugarriak ziren. Koldobika Jauregik diseinatu zituen, eta Leitzan, momentuan bertan ere ibili zitzaizkigun josten. Izugarri ondo zaindu gintuzten taldeko denek, famatu bagina moduan. Inportante sentiarazi gintuzten eta hori guk ez genuela aparteko papelik bete.

♦ Zer sentitu zenuen zure burua pantailea handian ikustean?

Zinemaldian ikusi aurretik erakutsi zituzten filma eta oso polita izan zen. Geure burua noiz ikusiko egon ginen denok.

♦ Zu zeu ere dantzari izandakoa zara. Laga zenuenetik zer berri topatu duzu?

Sentitu dut sekulako eboluzioa egon dela. Topatu ditut oso dantzari jantziak, koreografia oso landuak eta oso interesgarriak. Uste nuen asko apalduta zegoela euskal dantzen mundua, baina kontrakoa topatu dut. Euskal dantza tradizionalak berreskuratzeko asmoz abiatu ginen gu, baina hasi eta berehala konturatu nintzen urteak daramatzala jende batek horretan eta dantzak sekulako sasoi ona bizi duela. Osasuntsu dago oso dantza, baina iruditzen zait agerikotasuna falta duela. Uste dut film honek balio izan duela dantzen mundua bistartzeko edo gutxienez ageriago jartzeko.

♦ Jantziak ere ikustekoak dira. Izan da film mutua bat egiteko jantzitegi landua izatea ezinbestekoa dela idatzi duenik. Zer duzu esateko?

Bai eta ez. Jantzitegia eta gainerako guztia izan behar da landua elkarrizketa gabeko filmean. Zerbait ederra egin nahi genuen eta lan handia egin dugu ikusteko eta entzuteko film erakargarria sortzen. Jantzitegien kontuan nabarmentzekoa da Koldobika Jauregiren lana. Jantzi bakoitzak du bere esanahia, eta oinarrian denek dute Juan Antonio Urbeltzek jasotako sinbologia edertzeko nahia, beti ere nabarmenegi izan gabe.

♦ Pozik zaudete filmak izan duen harrerakin?

Bai, oso pozik. Egia da nahiko zaila dela gaur egun gure zinemetan leku bat egitea, baina lortu dugu, eta lortu dugu diodanean ez naiz ari esaten gure lorpena izan denik. Publikoak lortu du gure filmarentzako lekua egitea. Ahoz ahokoak izugarri ondo funtzionatu du gure kasuan. Halako ikusi behar bat sortu du publikoak, eta hori oso ona da guretzat, baina bereziki euskal dantzentzat da ona.

♦ Zer beste duzu orain esku artean ala buruan?

Aupa Etxebeste filmarekin ari gara orain. Grabazio-lanak amaituta dauzkagu eta muntatzen ari gara.

Bihar irtengo dira Etxegiña taldekoak eta Mendaroko santa eskekoak koplak kantari

Etxegiña taldeko kideak Elgoibarko kale eta auzoetan jardungo dute bihar kantuan eta eskean. 9:00etan batuko dira bolatokian, eta bi taldetan banatuta koplak dute herria. Urazandiko La Union elkartearen egingo dute bat bi taldeek hamaiketako egiteko, eta handik San Lazaro egoitzara joango dira. Ondoren, herriko kaleetan ibiliko dira, eta 14:00ak aldera Errosario kaleko Ama Birjinari abestuko diote. Amaieran, Baltasar elkartearen bazkalduko dute.



Mendaroko taldea, berriz, udaletxe azpian elkartuko da 8:30ean, eta hiru taldetan banatuta, herriko kale eta baserriak koplak dute. 14:30 aldera arte ibiliko dira eskean, eta Aizpe elkartearen egingo dute gero bazkaria. Batutako dirua Ameikutz musika eskolari eta Sendi Anaitasunari emango diote.

Otsailak 4, Santa Ageda bezpera eguna

Astlehenean Elgoibarko Izarrakoak baserriaz baserri irtengo dira, baina kalean ere entzungo dira Santa Agedari eskainitako koplak, Ikastolako umeak irtengo baitira kalejira, 15:15ean. (Euria egiten badu Ikastolan bertan egingo dute kantaldia).

Mendaron ere Ikastolako umeek kalejira egingo dute, 10:00etatik aurrera.




Ibon Villanuevak eta Zigor Bengoetxeak irabazi dute mus txapelketa

Joan zen zapatuan jokatu zuten Lanbroa tabernan Euskal Herriko mus txapelketako Elgoibarko kanporaketa. Lau bikotek hartu zuten parte, eta Ibon Villanueva eta Zigor Bengoetxeak osatutako bikoteak irabazi zuen. Gipuzkoako kanporaketa otsailaren 23an izango dute Zaldibian, eta txapelketako final nagusia martxoaren 16an jokatu da, Lizarran.

'Kirola Elgoibarren' izango da 2020ko egutegirako gaia

Elgoibar Europako Kirolaren Herria 2019 izendatu dutenez, Kirola Elgoibarren gaia aukeratu du Udalak datorren urteko egutegia osatzeko argazki lehiaketarako. Elgoibarren jaio, bizi, ikasi edo lan egiten dutenez gain, herriko kirol klubetako partaideek ere, herrikoek zein kanpokoek, lehiaketan parte hartzeko aukera izango dute. Parte hartzeko gutxienez adina 16 urtekoa izango da. Partaide bakoitzak sei argazki aurkeztu ahal izango ditu lehiaketarako, baina gehienez, hiru argazki sarituko zaizkio bakoitzari. Saritutako argazki bakoitzagatik 80 euroko erosketa bonua jasoko dute partaideek. Urriaren 9a izango da parte hartzeko azken eguna.


Nerea Artetxek irabazi du Mugertza Krosari buruzko erretratuen Instagram lehiaketa



Elgoibarko Gaztelekuak Mugertza Krosari buruzko bigarren Instagram lehiaketa antolatu du 13tik 18 urte bitarteko gazteentzat, eta Nerea Artetxek aterako argazki batek irabazi du. 150 euroko saria jasoko du. Guztira 51 argazki aurkeztu dituzte lehiaketarako. Argazkiak Gaztelekuan daude ikusgai, eta ikusleek botoa emateko aukera dute. Boto horiekin banatuko dute Publikoaren Saria, eta argazki irabazleak 100 euroko saria jasoko du.

'Ultimatum' eta 'La Txirla Records' taldeek kontzertua emango dute bihar Gaztetxean

Ultimatum eta La Txirla Records taldeek kontzertua emango dute bihar Sute-gian, Elgoibarko Gaztetxean, Gazte Asanbladak eta Salento jatetxeak elkarlanean antolatuta. Punk rock musika estiloko musika egiten dute bi taldeek. *Ultimatum* musika taldea Iruñean sortu zuten 1984an, eta bi urte geroago desegin zuten. Etenaldi luze baten ondoren, 2011n batu ziren berriz eta 2012tik oholtzan dabilta berriz ere. *La Txirla Records* taldea, bestalde, Agurainekoa da, eta 80ko hamarkadan euskal punk rockean puntan ibili zen *La Polla Records* taldeari egiten dio omenaldia. 21:30ean hasiko da kontzertua, eta doan izango da. Gazte Asanbladak hilean kontzertu bat antolatzeko asmoa dauka, eta hau izango da aurtengo lehenengoa. Martxoaren 15ean Anari etorriko da gaztetxera, eta apirilaren 6an *Perlata* eta *John Dealer & the coconuts*.



Ludoteka eta Gaztelekua ez kudeatzeko erabakia hartu du Elgoibarko Izarrak

Elgoibarko Izarrak proposatuta jarri zituen martxan Udalak Gaztelekua eta Ludoteka 2007an, eta ordutik bera izan da Ludoteka eta Gaztelekua kudeatzeko ardura izan duena, baina azken lizitaziora ez aurkeztea erabaki dute elkarteko arduradunek. Halaber, Elgoibarko Izarrak bere esker ona azaldu nahi die ekipamenduen inguruan ibili diren ume, nerabe, guraso eta hezitzaileei, eta onena opa die kudeatzaile berriei. Amaitzeko, Elgoibarko Udalarire bere esker ona azaldu nahi dio 11 urteotan Elgoibarko Izarrarekin izan duen konfiantzarengatik, eta bere prestutasuna azaldu dio aurreantzean ere Elgoibarko haur eta nerabeen aisia hezitzaile eta euskaldunaren mesedetan elkarlanean jarduteko. 9a izango da parte hartzeko azken eguna

Zigilu erakusketako bildumagileei eskerrak eman zizkieten zapatuan



Zapatuan amaitu zen Altzolatarren Dorretxea elkarteak San Anton jaien bueltan antolatzen duen zigilu erakusketa, eta amaiera ekitaldi horretan eskerrak eman zizkieten aurtengo edizioan parte hartu duten bildumagileei. Era berean, Mufomi taldeko kideei ere banatu zieten oroigarria, aurtengo erakusketa fosil eta mineralen museoarekin 25. urteurrenari eskaini dietelako.

'Patria' telesailerako aktoreak aukeratzeko proba, Elgoibarren

16 urtez gorako gizonak eta emakumeak behar dituzte *Patria* telesaileran figurante lanak egiteko. Asteazkenean egin zuten hautaketa saio bat Elgoibarren, eta gaur egingo dute bigarrena. Kultur Etxean izango da: goizez, 10:30etik 14:00etara, eta arratsaldez, 16:00etatik 20:30era. Interesatuak NANaren kopia eta IBAN eta guztiko kontu korronte zenbakia aurkeztu beharko dituzte hautaprobara. Aukeratzeko dituzten guztiei egingo diete kontratua, eta Gizarte Segurantzaz alta emango diete. Informazio gehiago www.yaelmorencasting.com helbidean.

Imanol Cid hirugarren lur gaineko Espainiako mushing txapelketan



Lur gaineko mushing denboraldia amaituta, Imanol Cid pozik da lortu dituen emaitzekin. Batetik, hirugarren postua lortu zuen lur gaineko Espainiako Mushing Txapelketan. Kantabriako Polientes herrian jokatu zuten proban 300 lagunek eta 456 txakurrek hartu zuten parte, mushing-ak dauzkan hainbat modalitatetan: canicross, bikejoring, scooter, e.a. Imanol Cid bi txakurrek tiratutako patineteen modalitatean lehiatu zen, DS2 izenekoa, Darko eta Atila txakurrekin. Lur gaineko Espainiako Kopan ere lehiatu da. Kopako lehen proban bigarren postua lortu zuen Hostalricen, Katalunian. Boborasen, Galizian, jokatu zuten Kopako bigarren proba, eta bosgarren egin zuen. Hirugarren eta azken proba La Fresnedan, Asturiasen, jokatu zuten eta txapelkunorde izatea lortu zuen han. Hala, hiru probetan lortutako puntuekin sailkapen nagusiko hirugarren postua eskuratu du. Elur gaineko mushing denboraldia hasiko da orain eta iaz lortutako emaitza onak erepikatzen saiatuko da musher elgoibartarra. Iaz txapelkunorde izan zen Baqueira Bereten jokatu zen Espainiako txapelketan.

Gorka de la Concepcion gailendu zen Elgoibarren jokotutako Euskadiko Giza Proba Txapelketan



Sigmako probalekuak hartu zuen aurreko zapatuan 2018ko bakarkako Euskadiko Gizon Proba Txapelketa. Bost lagun aritu ziren lehiari, lau bizkaitar eta arabar bat. 800 kiloko harria arrastaka eraman behar zuen bakoitzak orduerdiko saioan. Txandan txandan lehiatu ziren: goizean, bi parte hartzaile, eta arratsaldean, beste hirurak. Gorka de La Concepcion Castrejana bizkaitarrak irabazi zuen txapelketa, bi plaza, zinta bat eta 54 zentimetroko marka eginda. Irabazleak baino 17 zentimetro gutxiago eginda Gotzon Abasolo sailkatu zen bigarren postuan. Juan Carlos Lopez Perez de Onraita arabarra sailkatu zen hirugarren postuan (bi plaza eta 5,4 metro).



Sukia enpresa izango da Sanloren Eskubaloi Eskolako babeslea

Elgoibarko eskubaloi harrobiaren babesle nagusia Sukia eraikuntza enpresa izango dela jakinarazi du Sanlok. Eskubaloi taldeko arduradunak pozik daude bi aldeek lortutako akordioarekin eta halaxe adierazi dute: "Berri ezin hobea gure klubarentzat, lagungarri izango zaigulako, batetik txikienen formazioan kluba baliabide egokiez hornitzeko, eta bestetik, umeen taldeei bultzada bat emateko, neska-mutilen belaunaldi berriak eskubaloiira erakartzeko". Sukia enpresako arduradunek erakutsitako prestutasuna eta proiektuan duten konfiantza ere nabarmendu dituzte.

Igeriketa Erakustaldia, zapatuan

Elgoibarko Igeriketa Taldeak antolatuta, VIII. Igeriketa Erakustaldia egingo dute zapatuan (otsailak 2) Olaizaga kiroldegian. Igeri taldean dabilzan ehun bat ume eta Master taldeetan diharduten beste 50 bat igerilarik hartuko dute parte. Umeak 16:00etatik 17:30era arituko dira lehiari, eta 18:00etatik 19:30era, nagusiak. 50, 100 eta 200 metroko igeriketa probetan arituko dira zein nagusiak.

1 BARIXAKUA

18:30 Erakusketa: Ane San Martinen olioak. Kultur Etxeko erakusketa gelan egongo da ikusgai hilaren 9ra arte.

2 ZAPATUA

8:30 Santa eskea, Mendaron. Udaletxe azpian elkartuko dira.

9:00 Etxegina taldekoen santa eskea. Bolatokiko parkean.

10:00 Kandelaria Eguneko meza berezia. San Bartolome parrokian

21:00 Kontzertua: *Ultimatum* eta *La Chirla Records*. Gazte Asanbladak eta Salento pizzeriak elkarlanean antolatuta, Gaztetxeko sutegian.

3 DOMEKA

San Blas Eguneko mezak

8:30 Maalako kaperan

10:30 Sallobenteko ermitan

10:30 Idorbekoko ermitan

11:30 San Bartolome parrokian

11:30 Arriagako kaperan

12:30 Aiastiako ermitan

11:00 Sendi Anaitasuna elkartearen urteko batzarra. Mendaroko Azpilgoeta elizan. Bilerara joaten ez den bazkideak 10 euroko isuna ordaindu beharko du.

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua. Herriko Antzokian.

1. *Pads Valley* (Ben Haemhoust)
2. *La zarzuela* (Raul Segui)
3. *Spotlight* (Thomas Doss)
4. *El pájaro choui*. Jesus Urizarren omenez. (Mold. Txomin Mujika).
5. *Sounds from the 60's* (Mold. Nachiro Iwai).

4 ASTELEHENA

10:00 Mendaroko Ikastolakoen santa eskea. Ospitalean hasi eta herri osoa pasatuko dute kantuan. Mendarozabalen amaituko da 12:00etan.

14:30 Santa eskea, baserriz baserri. Elgoibarko Izarrak antolatuta.

15:15 Ikastolakoen santa eskea. Euria egiten badu, Ikastolan bertan egingo dute.

7 EGUENA

20:00 Isiltasun Eskolaren topaketa. *Gizarte dinamikoek taldeen antolaketa eta kohesio eredu zaharrak suntsitzen dituzte*. Jose Cruz Igartuak gidatuko du saioa. Kultur Etxeko sotoan.

8 BARIXAKUA

18:30 Gurasoentzako formazioa: Haur eta gazteen transexualitate egoerak: Sexu aniztasunaren balioa. Kalamua, Arreiturre, Haurreskola eta Ikastolako Guraso elkar-teak eta Ongizate Saila.

20:30 Aurrez grabatutako opera: *La traviata*. Herriko Antzokian.

Zinea (Herriko Antzokian)



'Dantza'

- 1 barixakua: 21:30
- 2 zapatua: 19:00 / 22:15
- 3 domeka: 19:00
- 4 astelehena: 21:30

'Asterix eta edabe magikoaren misterioa'

3 domeka: 16:30

'No te preocupes, no irá lejos' (Ongarri zinekluba)

7 eguena: 21:30

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
1 BARIXAKUA	2 ZAPATUA	3 DOMEKA	4 ASTELEHENA	5 MARTITZENA	6 EGUAZTENA	7 EGUENA	8 BARIXAKUA
Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea
Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00
La Fuente - Sostoa kalea, 10 (Eibar)
943 254 410

LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zainduko nituzke.
☎ 631 667 099

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka edo etxeko langile moduan.
☎ 631 470 506

Ume zein nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 653 667 975

Umeak zein nagusiak zaintzeko prest nago. Asteburuetan ere bai. Erreferentzia onak.
☎ 636 517 025

Lanerako prest nago. Umeak eta adinekoak zaintzen esperientzia handia.
☎ 632 642 350

Garbiketarako egiteko edo adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia.
☎ 602 084 256

Umeak zein nagusiak zaintzeko prest nago. Esperientzia.
☎ 631 145 986

Nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 631 724 921

Umeak zein nagusiak zaintzeko prest nago.
☎ 632 392 251

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka edo etxeko langile moduan.
☎ 632 229 972

Ume zein nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.
☎ 632 452 026

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka edo etxeko langile moduan.
☎ 612 531 623

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia handia.
☎ 616 457 254

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia handia.
☎ 631 729 476

Etxeak garbituz edo nagusiak zainduz egiteko prest nago. Orduka aritzeko prest.
☎ 602 490 595

Adinekoak edo umeak zainduko prest nago. Esperientzia handia menpekotasuna dutenak zaintzen eta etxeko lanak egiten.
☎ 646 113 239

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka edo etxeko langile moduan. Arratsaldean.
☎ 638 338 816

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka edo etxeko langile moduan.
☎ 643 323 088

Umeak edo adinekoak zainduko nituzke.
☎ 612 463 096

Umeak zein nagusiak zainduko prest nago.
☎ 653 667 975

Umeak zein nagusiak zainduko prest nago. Ospitalean ere bai.
☎ 631 822 545

Baserrin lanetan edo erakuntzan jarduteko prest nago. Esperientzia handia daukat.
☎ 644 849 206

Garbiketa lanak egiteko edo etxeko langile moduan jarduteko prest nago. Titulazioa daukat.
☎ 626 407 923

Adinekoak zaindu edo beste edozein lan egiteko prest nago.
☎ 651 195 167

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka edo etxeko langile moduan.
☎ 655 094 780

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka edo etxeko langile moduan. Erreferentzia onak ditut.
☎ 612 232 312

Adinekoak zainduko nituzke, asteburuetan.
☎ 648 039 187

Ume zein nagusiak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. Erreferentzia onak ditut.
☎ 612 232 312

Etxeko langile moduan egingo nuke lan. Berehalaz hasteko prest nago. Erreferentzia onak ditut.
☎ 631 975 260

Ume zein nagusiak zainduko nituzke. Orduka edo etxeko langile moduan.
☎ 653 667 975

Eskaintza
Taxi lizentzia traspasatzen da jubilatzaientzat.
☎ 669 895 592

Malape tabernarako zerbitzaria behar da.
☎ 673 481 976

PARTIKULARRAK.....
LH eta DBHko klase partikularrak ematen ditugu. biribiltxoko@gmail.com
☎ 630 055 077 / 666 667 183

VIII. URTEURRENA

Fernando Azpiazu Uribetxeberria

2011ko urtarrilaren 30ean hil zen.

Beti izango zaitugu gogoan.

Etxekoak



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzko Alkartasuna
Euzko Alkartasuna



ROSA Mª PINTADO

Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitateko garajeetako gune komunetan eta baita plaza pribatuetan ere pintura poteak, eskilarak, apalak eta bestelako elementuak utzi ditu jendeak. Jakin nahi nuke komunitateko lehendakariak agindu dezakeen elementu horiek kentzeko edo Jabedunen Batzarrak hartu behar duen erabakia.

Egoera honen aurrean egokiena izaten da Jabedunen Batzarra egin arte itxarotzea. Zuk aurkeztu diguzun kasua komunitateko arazo zehatz bat baino zabalagoa da. Aipatzen duzuna ez da kasu isolatu bat, baizik eta komunitateko kideen utzikierazko jokabidearen eraginez gertatu den egoera bat. Beraz, egokiena izango litzateke garajeetako jabe guztiek onartzea gune komunak libre utzi behar direla, eta pribatuak autoa aparkatzeko soilik erabiliko direla, bestelako edozein erabilera komunitatearen kalterako izango delako.

GOMENDIOA: Komunitateko lehendakariak erabakiko balu elementu horiek guztiak kentzea, berak erabaki beharko luke non utziko dituen, eta horrek, elementuak galtzeko edota kaltetzeko arriskua dauka. Hortaz, formalki deitutako Jabedunen Batzarrak hartu beharko luke erabakia.



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Lihertxo!** Urtebete gure artean. Jaio zinenetik, maitasunez zoratuta gaude zurekin. Ilargiraino eta buelta maite zaitugu, bide zaharretik.



Zorionak, **June,** polit hori, atzo zure eguna izan zelako. Segi beti bezain jator. Guraso, Enaitz eta lagunen partez, muxu bat.



Aurtengoan berandutxo ospatu dugu! 8 urte handi, **Laia!** Patxo potolo bat etxekoen, eta bereziki, Eneko eta Alaintxoren partez.



Zorionak, **Laia!** Etxeko printzesak 7 urte! Muxu bat etxekoen, eta bereziki, Endika, Irtati eta Aimarren partez.



Zorionak, **Bittor,** gaur 6 urte egin dituzulako. Muxuak familiako guztion partez.



Zorionak, **Mar-kel!** 10 urte borobil bete dituzu! Ondo-ondo ospatu zure eguna eta muxu handi bat bereziki, Nora, Roke eta Lukaren partez.



Ongi-etoerri, **Alaia.** Elgoibarko iratxoen partez.



Zorionak, **Lihertxo!** Igandean urte handi bat. Asko, asko maite zaitugu!



Erretratu bakarrekogurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrekogurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Zorionak, **Ane eta Eneko,** etxeko guztion partez. Bihar 8 urte beteko dituzue! Ondo pasa zuen egunean. Muxu bero-bero bat.



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

IKASBAI

AKADEMIA

IKASGO

ACADEMY

- INGELES ESKOLA ERREFORTZUA
- CAMBRIDGE AZTERKETAREN PRESTAKUNTZA
- IRAKASKUNTZA PERTSONALIZATUA
- TALDE TXIKIAK

667 261 248

(Leire)

Basarte 13, behea - Elgoibar
akademaelgoibar@gmail.com



colchoneria textil hogar





1. gunea: urtetik 8 urteko umeentzako egokia



2. gunea: 8 urtetik gorakoentzako egokitzen den gunea.

HONEY lastaira umeen garapen eta hazte prosezuan ezaugarri eta berezitasun guztiak kontuan hartzen duen bakarra da. 2 gune dituen lastaira izategatik desberdintze da:

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



Iñigo Lamelas

Jose Luis Azpillaga



// Bizitzan ez da ezer hasten ez ezer amaitzen, jendea heldu eta joan egiten da, egunetik egunera aldatzen dira gauzak, beti behin-behinekoa den kontabilitate arraro batekin."

Bizitzea ez al da oso arriskutsua?

Joseba Sarrioncandia

Bizitza, azken batean, igarotzea da: "jendea heldu eta joan egiten da", argazkiko pagadian behiak eta ibiltariak igarotzen diren moduan. Dena aldatzen da, errekaetan behera doan ura edota zuhaitzetako hostoak nola, urte-sasoen zikloaren mende. Dena igarotzen da, are zuhaitzak ere.

Norberaren kontabilitatean, hala ere, badira gertaerak edo egoerak bizi-aro bakoitzaren amaiera edota hurrengoar-

ren hasiera markatzen dutenak. Haurtzarora eta gaztaro-hasiara joan ziren, noiz eta, agian, herritik kanpora ikastera joan ginenean. Gazte-garaia ere bai, beharbada, familia sortu eta umeak etorri zirenean. Seme-alaben haurtzarora eta nerabe-zarora ere bizi izan ditugu, haiek etxetik joaten hasi diren arte. Lanean ere hasi ginen duela urte mordo bat, eta orain erretiroa hartzerantz goaz... Badirudi etapak errez eta amaituz goazela.

Behin-behineko kontabilitate horretan, ordea, katea ez da eten: errekak ur berria ekarriko du mendian behera, etorriko dira behi eta ibiltari gehiago ere, eta pagadiak hosto berriz jantziko dira hurrengo udaberrian; jaioko dira berriak euren bizi-aroak gozatuko dituztenak; etorriko dira lankide berriak, lanean jarraituko dutenak... eta denak segi egingo du, gu gabe ere. Eta poztu egiten naiz.

"Badirudi etapak errez eta amaituz goazela"



I. URTEURRENA

Angel Arrieta Garate

2018ko urtarrilaren 21ean hil zen, 79 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, otsailaren 3an,
eguerdiko 12:30ean Mendaroko Azpilgoetako eliz-parrokian.
Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.



V. URTEURRENA

Luis Izagirre Arrizabalaga

"Lizundia"

2014ko urtarrilaren 29an hil zen, 69 urte zituela. Haren oroimenez
V. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailaren 2an, 19:00etan, Elgoibarko
Bartolome Deunaren Eliz-parrokian. Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.



Etxekoak




V. URTEURRENA

Idoia Laka Lizaso

2014ko otsailaren 3an hil zen, 38 urte zituela. Haren oroimenez
V. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailaren 2an,
19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren Eliz-parrokian.
Joango zareteneoi alde zurretik eskerrak.

**Laster arte ezpainetan,
utzi gaituzu penetan,
orain gure ametsetan,
bizirik zaude benetan,
zeruko izarretan.**

Zure familia



V. URTEURRENA

Idoia Laka Lizaso

2014ko otsailaren 3an hil zen, 38 urte zituela.

**Behar dugunetan ezin gara babestu zure besoetan,
baina badakigu hor zaudela ezkutatuta gure bihotzetan.
Zure irribarrea gogoan, ezin ahaztu eta ezin ikutu.
Zergatik ez zauden gurekin, ezin dugu jasan, ezin dugu ulertu.**

Maite zaitugu

Azkoiti-Elgoibarko lagunak



**EUSKALDUNA
HERRITARRA**

HEZKUNTZA EREDU PROPIOA

ERALDATZAILEA

Herritik sortuak eta herrientzat

Kooperatiba

Auzolana eta elkarlana

Euskal Curriculumra

Kompetentziatan oinarritutakoa

Aitzindaritza Pedagogikoa

Prestakuntza eta

aholkularitza

I+G+B

Ikasmaterialgintza

propioa

Bikaintasuna ikasleen
hobekuntzan

Euskal Kultura

Euskal Herritik mundura

Euskaran ardatzuriko

eleaniztasuna

elgoibar@elgoibarikastola.eus

943 74 44 41



elgoibar ikastola
www.elgoibarikastola.eus

EUSKALDUNA

ikastola

elkarrekin

Aurre-matrikulazioa:

hezkuntza

urtarrilaren 28tik

eraldutzen

otsailaren 8ra